

Donostia'n, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, bildu dira, Lojendio, buru, Arrue, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal, Lekuona, Mitxelena, Satrustegi, Villasante, euskaltzaiñak; Aresti, Berriotxoa, Labayen, A. Omaetxebarria, San Martin, A. Zabala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak.

Azken batzarreko agiria ontzat artu baiño leen, Arrutza urgazlearen eskutitza irakurri da. Onen ustez, bidezkoak ziran Bilbao'n arturikako zenbait erabaki (zadorlari, diru- eta liburuzaiaren izendapenak), aldez aurretik iragarriak diran ezker, bear bezala; ez, ordea, zadorlari-ordezkoaren izendapena, batzardeiak ezpaitzuen orrelakorik aipatzen.

Bildurik daudenen artean, bi iritzi agertzen dirala ikusirik, ixilleko botoetara jo da, eta Bordele'tik ezin etor zitekean Haritschelhar euskaltzaiñak bere boza agertzeko eskua Eppherre jaunari eman dio, eskutitz baten bidez. Iritziak onela jaso dira zuri bat, erabakiaren kontra iru, eta alde zazpi. Erabaki ori finkatua gelditzen da, beraz, eta Irigoyen zadorlari-ordezko izendatua.

Lojendio euskaltzainburuak du itza. Bi berri ematen ditu aurrenik aditzera: Katalina Elizogi euskal-antzerkigille ezagunaren eriotza eta Manuel Zelaya jaunak ondu berria duen Apokalipsis-aren euskal-itzulpena. Gero, bere buruzagitzaren epea bete da dala deritzala dio. Eskerrak emanaz, Euskaltzaindiak bitarte orretan izan dituen gora beerak aipatzen ditu. Egun ederrak izan ditugu Belloke, Baigorri, Luzaide eta Azkain'en, baita ere Arantzazu'ko biltzarrean. Euskaltzaindi-barruko auzimauziak, ordea, eztira bear adiña garbitu: lekuko Azaroaren 7-an Akesolo, Erkiaga eta Gorostiaga euskaltzain bizkaitarrek egin duten izkribua, Euskaltzaindiarekiko ar-emanak bertan beera uzten dituztela adierazirik, Euskaltzainburua bere ibillalditik datorreño. Aita Akesolo'k, gaiñera, atzoko egunez idatzi digu bere izendapenez dituen duda-mudak azalduaz eta orrexegatik, beranduxamar ala ere, ezin ar dezakeala aditzera emanaz.

Oek lirake, bere ustez, egin bear lirakean urratsak:

1) Lendakariaren ordez, beste Akademietan bezala, zuzendaria ipiñi euskaltzaindian ere, euskaltzaiñik jakintsuena orretarako autatuaz;

2) orretan eta beste zenbait puntutan, araudia aldatu bear litzake, oraingoaren akats eta utsuneak baztertzeko. Buruzagitza uzteaz ezteritza kalterik egiten duenik, on baizik. Agur-itx oriekin Mitxelena zadorlariaren eskuetan uzten ditu arazoak.

Eskerrak ematen dizkio Irigaray'k eta bidenabar eskatzen apur bat iguriki dezan beste buruzagi egoki bat —baketzaillea, ez bereiztaillea— aurkitu arte. Orobat eskatzen diote zenbait euskaltzaiñek, itxedon dezan araudia eraberritu arte bederen. Lojendio, ordea dago, epea bete duelakoan, bilduak ao batoz bere asmoaren kontra

agertzen dira arren. Amor ematen ezpadute ere, bera lotu gabe izan dedilla eskatzen du.

Araudiaren eraberritzea ontzat artzen da, aurrerantzeko izendapen berriei dago-kionez, batez ere. Orretarako sortu dan batzordea, Arrue, Lojendio eta Haritschelhar izan dira autatuak zadorlariarekin batera.

Diharce'k Bilbao'n egin ditezkean izendapenak aipatzen ditu. Beste zenbait iritzi agertzen dira gai orrezaz eta Lojendio'k, berriz ere an eta emen orri dagokiola izan dituen ar-emanak gogoratzen ditu. San Martin'en ustez, bear dugun bakea ezin erdiets zitekean alde bateko eta besteko sakrifiziorik gabe. Danok dugu orrexegatik bekatu pixka bat. Obe baita orrelakoetan garbi mintzatzea.

Edili S. A-ren Azaroaren 15-eko eskutitza irakurri da: Radio San Sebastian-en euskera irakasten astekoak dira, Oñatibia'tar Juan'en irakaspide berri baten bidez, eta euskaltzaindiaren babesa eskatzen dute orretarako. Baiezkoan erantzun bekio.

Orobat erantzun bekie Irun'go Kristau Eskolotako anaiei, oek ere euskal-kastaldiak sortzeko asmoa baitute aur txikientzat.

Diru-gaietan, aditzera ematen du Irigoyen'ek 50.000 pezeta eman dizkiola biza-kaiko Diputazioak Euskaltzaindiari, igaz bezala, Donostia'koen berri dakar zadorla-riak, emengo Iriko Ahorro-Kaxak, eskabide baten ondoan, 5.000 pezeta eman dizki-gula adieraziaz aurtengo, leengo 2.000-ren ordez.

Mondragoi'ko Sociedad Cultural "Juan Carlos de Guerra" sortu berriak Eus-kaltzaindiaren babesa eskatzen du bere lanetarako eskutitz batean. Zer-nolako asmoak dituzten azaltzen du Arrue'k eta ontzat artzen da ao batez eskabidea, gure izkuntzaren onerako izan ditezkean aldetik.

Ontzat artu dira, zorionak emanaz eratzailleei, San Martin'ek aurkeztu dituen agiri eta diru-garbitzea Eibar'en, Euskaltzaindiaren izenean, Azaroaren 17'an egin zan bertsolari-saioari dagoztenak.

Association Internationale & Cultures Menacées delakoa Turku'n, Finlandia'n, sortu berria den elkargoaren deia irakurtzen da ondoren, Euskaltzaindiaren izena eta laguntza eskatuaz: Pierre Naert, linguista ezaguna gure saillean, da elkargo orren eragillea. euskualtzaleen biltzarrak eta Ikas'ek bere izena eskeiñi dutela dio Larza-bal'ek. Lojendio'k eta Mitxelena'k diote atzeratua daukala Euskaltzaindiak aspaldi egin bear zukean eginkizuna: ongi ausnartu ondoren alde bateko eta besteko aginta-riei Euskaltzaindiak aurkeztu bear liokean eskabidea, alegia, gure izkuntzak iraun dezan egun bear ditugun baimenak eta laguntzak agertuaz. Orretara el ez gaitzeiño eztauzkagu zurituak geure buruak besterik egiteko. Nolanai ere, eta bat datoz guz-tiok orretan, edieraz bekio elkargo orri aintzat eta begi onez artu duela Euskaltzain-diak bere deia.

Jesus'en Konpainiaiko Aita Goikoetxea'ren eskutitza irakurri da. Arantzazu'ko euskaltzaleen biltzarrean Loyola'n egitea erabaki zan ezkerro datorren urtekoa, Aguz-tuaren 21, 22 eta 23-ak eskeintzen dizkigu orretarako. Esker onez onartu da eskeintza. Biltzarre orretarako gaia finkatu bear litzake, ordea, ainbat lasterren. Euskal-atlas linguistikoa aukera ditezke, San Martin'en ustez; beste zenbaitek, berriz, leen aipatu ditugun euskeraren aldeko eskabideak egokiago letorzketela uste dute. Nola-nai ere, datorren batzarrerako utzi da puntu ori bear bezain astiro erabakitzea.

Oi dan otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.